

10 'Siete calles de la Habana'



Ezker-eskuin, esklabotzaren irudiak, eta erdian, Julian Zulueta Amondo arabarra. SIETE CALLES DE LA HABANA / ZULUETA

Zulueta argi-ilunak

XIX. mendeko Kubako oligarkiako kide garrantzitsuenetariko bat izan zen Julian Zulueta arabarra, kale bati haren izena jartzeraino.

Arantxa Elizegi

Ile leuneko mulatotxo bat saltzen da, 7 urtekoa, osasuntsua eta oso polita, egokia morroitarako, 26 onzatan». XIX. mendeko Kubako egunkarietan ohikoak ziren halako iragarkiak. Finean, esklaboen lanean oinarritzen zen orduko sistema, haiek gabe ezinezko izango zen orduko aberatsen bizi-moduari eustea. Testuinguru horretan heldu zen uhartera Julian Zulueta Amondo arabarra (Anuzita, 1814). Garai hartako agintariek harreman estua izan zuen Zulueta —pertsonek trafikoan ez zizkizkiz, azukrearen industrian eta mailegu-emaile lanetan ere aritzen—, kale bati haren izena emateraino. Hari buruzkoa da Angel Gonzalez Katarainen *Siete Calles de la Habana* (Habanako zazpi kaleak) proiektuko bigarren dokumentala —www.semillaseneltiempo.com webgunean aurki daiteke—.

«Bitxia da, baina horrenbeste urte eta gero, Zulueta ondo-rengobatzuei oraindik min egiten die haren irudiak. Izan ere, zail da zure seme-alabei azaltzea haien birraitona esklaboen kontrabandoan aritzen zela», dio Katarainek. Hori izan da, hain zuzen ere, dokumentala egiterakoan topatu duten zailtasun nagusietako bat. «Ez nuen ideia jakin bat adierazi nahi, bakoitzak bere ondorioak ateratzea nahi nuen». Helburu horrekin, hainbat historialariren kontakizuna ez ezik, Zulueta esklaboen ondorengoengana ere jo dute. Eduardo Marrero kubatar historialariak dioen moduan, hoberena norberak bere historia ezagutzeko delako, «argi esan behar dugu Zulueta independentziaren aurkakoa eta esklabista izan zela».

Azukrearen industria ikertzen ari zela egin zuen topo Marrerok Zuluetaekin, eta ohartu zen hark uharrearen ekonomiaren alde egin zuen lana ahaztu egin zutela,

batez ere independentisten aurkakako boluntarioen eta txapelgorrien batailoien bultzatzaileetako bat izan zelako, —Kubako historiako batailo ankerrenetako bat izan zen txapelgorriena—. «Berak egindako etxebizitza asko zutik daude oraindik, eta trenbideak ere duela gutxi arte erabili ditugu. Haren azukre enpresetako bat ere haren esklaboen ondorengoek hartu zuten, eta bertan jarraituzuten lanean. Eta ezin onartuzkoa da halako pertsona bat liburuetan azaltzen den aldiro haren izen ona zikintzeko izatea». Dena den, Marrero ere bat dator Katarainekin, ezin dela haren irudia goratu egin zituenak ezkutatuz, Zulueta esklaboen kontrabandoa bultzatu baitzuen, hura ia mundu guztian —Espainiak 80 urte geroago debekatuko zuen— legez kanpokoa zenean.

Inoizko genozidiorik handiena

Esklabotzak 400 urte inguru iraun zuen, eta tarte horretan, Europako datuen arabera, 50 milioi lagun hil ziren Afrikatik Amerikara bidean, hiru lagunetik bi. Katarainek uharrean aurkitutako datuak, ordea, are heldurgarriagoak dira. «Han beste dokumental batekin egin nuen topo, Santiago Alvarezen *Nova sinfo-*

nia zuen izena, eta honelaxe zioen: 'Europako zibilizatuak Afrikan harrapatutako 150 milioi lagunetatik soilik 15 milioi heldu ziren Amerikara, giza merkantzia bilakatzeko. Beste guztiak, 135 milioi, ehizaren eta bidaiaren ondorioz hil ziren'. Izututa geratu nintzen hori entzutean, eta Zulueta buruzko dokumentalean bere



Hainbeste urte eta gero, Zulueta ondo-rengobatzuei oraindik min egiten die haren irudiak»

«Esklaboak luxuzko produktu bihurtu zirenean, tratu hobea jasotzen hasi ziren»

ANGEL GONZALEZ KATARAIN
Dokumentalgilea

horretan txertatzea pentsatu nuen, baina zenbakia horren zen izugarria eta hain alde handia zegoen hemengo datuekin, non Europako zenbakie kasu egitea erabaki nuen. Gizakien historiako genozidio handiena izan zen hura».

Zulueta esklabotza erabat normala zen gizarte batera heldu zen. Haren asmoa ez zen, hasieran

behintzat, horretaz bizitzea. Enpresari izatea zen haren ametsa, eta horretarako baliatu zituen osabak utzitako biltegia eta bi kafe uzta. Gerora, Francisca Samarekin ezkondu zen, oligarkia esklabistako kide zen familia katalan bateko alabarekin, eta hortik sartu zen pertsonen salerosketan. Haren esklaboen ondorengoek, baina, argi dute Zulueta ez zela asmo txarreko gizona, «garai hartako sistemaren biktima» baizik.

Esklabotza legez kanpokotzat jo zutenean hasi zen Zulueta pertsonen kontrabandoan, irabaziak %150 inguruokoak zirelako. «Esklaboak luxuzko produktu bilakatu ziren, eta, horri esker, jasotzen zuten tratua hobea zen, urte batzuk lehenago ez bezala, haietako bat galtzeak diru asko galtzea esan nahi zuelako», dio Katarainek. Egun, Zulueta herrian esklabotzari buruzko museo bat dago, eta bertan ondoko poema hau irakur daiteke: «*Cuando estos ojos de negra se cierran para descansar/ es cuando solo yo sé lo que es la libertad.*» (Beltz honen begiak atsedean hartzeko ixten direnean/ dakit soilik nik zer den askatasuna)»

Dokumentala Hondarribiko Banako tabernan emango dute hilaren 16tik 19ra bitartean, 20:00etan; eta Ordizian, apirilaren 24an, 20:30ean.



Esklaboen ondorengoek Zulueta familiako kide batzuei egindako harrera. SIETE CALLES DE LA HABANA / ZULUETA